

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2011ko UZTAILAREN 7an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2011ko uztailaren 7an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 19.30 orduetan, Xabier Mujika Pagola alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola


ZINEGOTZIAK: Igor Barandiaran Perez de Arriluzea
Gotzon Jauregi Sarasola
Imanol Aranzabal Lasa
Karlos Irazu Muñoa
Aritz Usandizaga Larrañaga
Jon Tejeria Otermin

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarreko akta onestu, hala badagokio:**
 - 2011ko ekainaren 11an egindako ez-ohiko bilkura
 - 2011ko ekainaren 21ean egindako ez-ohiko bilkura
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Haurreskola egoera aztertu eta gai honi buruz Guraso Elkarteak eginiko idatziari erantzuna ematea, hala bada.**
- 4. Udal artxiboa antolatzeko esleipena, hala bada.**
- 5. Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 2011ko 1. Eta 2. Hiruhilabeteko ekarpenak burutzea, hala bada.**
- 6. DINA-7 Kultur Elkarteak eginiko eskaeraren azterketa, hala bada.**
- 7. Urbeltz auzoko 37,38 eta 39 ko jabeak eginiko baimena eskaera, eraikinetako teilatu azpiko zurak berotik eta euritik babesteko tratamendua emateko baimena eskaera, hala bada.**
- 8. Urbeltz auzoko 27,28,29,30,32,33,34,35,37,38 eta 39 etxeen jabeak eginiko eskaera aztertu, Kultur-etxeko teilatuan antena kolektiboa jartzeko.**
- 9. Hezkuntza departamentuari tartekaturiko helegiteak sortutako gastuen onarpena, hala bada.**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

10. Goi karguen soldata, dietak eta aseguruen onspena, hala bada.
11. Apatta-errekako industrigunearen zerga banaketaren berri ematea, hala bada.
12. ETORLUR Gipuzkoako Lurra eta Foru Aldundiarekin izandako bileraren berri ematea.
13. D.C.A. andreak eginiko eskaeraren azterketa, hala bada.
14. 2010. Ekitaldiko Aurrekontuaren kontu orokorraren onarpena, hala bada.
15. 2012 urtean Larraulen Eskola txikitako jaia ospatzeko Udal babesia ematea, hala bada.
16. Fakturak eta ordainketak.
17. Beste batzuk.
18. Erregu, galderak eta mozioak.

.../...


LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DIREN UDALBATZAREN AKTAK ONESTU, HALA BADA.

- ▣ 2011 urteko ekainaren 11ko Udalbatzaren eratze akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.
- ▣ 2011 urteko ekainaren 21eko Udalbatzaren ez-ohiko akta.

Karlos Irazu zinegotziak hitza hartzen du eta azaltzen du 2011 urteko ekainaren 21ean egin zen Udalbatzarrean hartutako erabakiarekin oso minduta sentitzen dela. Hau da, Eskolako ordezkaria izateko bere burua aurkeztu zuela eta ez zitzaiola onartu, Larraulgo Guraso Elkartearekin identifikatzen zutelako. Beraz erabaki hori berriro tratatzeko proposamena luzatzen du.

Irazu zinegotziak ere azaltzen du, nahi duela Asteasuko Pello Errotako Zuzendaritza eta Ikasketa buruak Udalera etorri daitezela eta beraren aurka dituzten arrazoiak berari zuzenean jakinaraztea, ondoren Udalbatzarrari eskatzen dio bilera horren ostean berriro tratatu dadila Eskolako ordezkariaren izendapena. Gainera beste batzarkideei galdetzen die ea aurreko legealdian Asteasuko Pello Errota Eskolako Klaustroan ea tratatu edo kuestionatu ahal zen bere izendapena. Bera dakienez ez baitzen egin.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Gainera Irazu zinegotziak proposatu zuen Pello Errota Eskola organo kolegiatuaren izena aldatzea, bertan sartu nahi zituelako bai Asteasuko Eskola eta Larraulgo eskola eta azaltzen du ez zela egin.

Beraz Karlos Irazu jaunak eginiko proposamena bozkatu egiten da, hau da, Asteasuko Pello Errota Eskolako Zuzendaritza eta Ikasketa buruak Larraulera etortzea, bere kontra dituzten argudioak ematea eta ondoren informazio guztiarekin berriro Organo Kolegiatu horren ordezkariaren izendapena berriro tratatzea. Bozketa egiten da ondorengo emaitzarekin:

- Aldeko botoak: 7
- Kontrako botoak: 0
- Abstentzioak: 0

Beraz bozketaren emaitza ikusirik Karlos Irazu zinegotziak eginiko proposamena aho batez onartzen da.

Segidan 2011 urteko ekainaren 21eko ez-ohiko Udalbatzaren akta irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

BIGARREN PUNTUA **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik ez dituela ebazpenik eman, berri ematen du Idazkari-kontuhartzaile andreak.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.


LAUGARREN PUNTUA **UDAL ARTXIBOA ANTOLATZEKO ESLEIPENA, HALA BADA**

Ikusirik Larraulgo Udal artxiboa mantentzeko lanak azkeneko aldiz 2008 urtean egin zirela, dokumentu asko pilatu direlarik ordutik artxiboan.

Ikusirik Larraulgo Udal artxiboa txukuntzeko lanak egin behar direla, horretarako bi aurrekontu eskatu direla: Consuelo Urteaga eta Ereiten kultur zerbitzuarenak.

Ikusirik proposamenen artean egokiena Consuelo Urteaga Uria andreak eginikoa dela. Hau da, bere proposamena ondorengoan datza:

“Hiru urteko dokumentazioa antolatzeke 2.124 euro izango dira (BEZ barne)”



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Consuelo Urteaga Uria andreari, Larraulgo Udal artxiboaren eguneraketa lanak egiteko kontratua esleitzea, 2.124,00.- euroko kostua izango duelarik (BEZ barne).

BIGARRENA: 2.124,00.-euroko gastua onartzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Consuelo Urteaga Uria andreari eta Ereiten Kultur zerbitzuari ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI 2011ko 1. ETA 2. HIRUHILABETEKO EKARPENAK BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik 2011ko maiatzaren 20an Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko idatzia, non 2011 ekitaldiko 1 eta 2. Hiruhilabetean sortu daitezkeen gastuei aurre egin ahal izateko Larraulgo Udalak burutu beharreko ekarpena 15.000,00 eurokoa dela adierazten den.

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 15.000,00 eurotako ekarpena burutzea 2011 ekitaldiko 1. eta 2. Hiruhilabetean sortu daitezkeen gastuei aurre egiteko.


BIGARRENA.- 15.000,00 eurotako gastua onartzea.

SEIGARREN PUNTUA

DIN-7 KULTUR ELKARTEAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik Dina-7 Kultur Elkarteak, Larraulgo Ekomuseoaren izenean eginiko eskaera, non ondorengo dioen:

“Idatzi honen bidez, Dina-7 Kultur Elkarteak ESKAERA hau luzatu nahi dio Larraulgo Udalari:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Larraulgo Museo Etnografikoa kokatuta dagoen ingurua, hau da, ataria, bolatokia bera eta bere aurrean dagoen paperontzia txukun mantentzeko behar den maiztasunarekin garbitzea.

Eskaera hau luzatzeko beharrean aurkitu garenez eta Udalak ulertuko duelakoan, aldeztu aurretik eskerrak.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Larraulgo Udalak, Dina-7 Kultur Elkarteak eginiko eskaera kontutan hartzea eta ahal duen heinean beteko duela jakinaraztea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

URBELTZ AUZOKO 37,38 eta 39KO JABEAK EGINIKO BAIMENA ESKAERA, ERAIKINETAKO TEILATU AZPIKO ZURAK BEROTIK ETA EURITIK BABESTEKO TRATAMENDUA EMATEKO BAIMENA ESKAERA, HALA BADA

Ikusirik Urbeltz auzoko 37,38 eta 39ko jabeak eginiko eskaera, non eraikinetako teilatu azpiko zurak berotik eta euritik babesteko tratamendua emateko obra baimena eskaera egiten duten.

Ikusirik 2011ko ekianaren 30ean, Eba Erkizia Brion Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean dioena:


“LARRAULGO URBELTZ 37,38 eta 39 etxeetako teilatu hegaleen babes tratamendua egiteko eskaerari buruzko txostena

Larraulgo URBELTZ AUZOKO 37,38 eta 39 zenbakietako bizilagunek, 3 etxeen teilatu hegaleen zurak, bai berotik eta bai hezetasunetik babesteko tratamendua emateko baimena eskatzen dute, egin beharreko lanen aurrekontu bat aurkezten dutelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, ZERA ADIERAZTEN DUT:

Aurkeztutako eskarian, 3 etxeen teilatu hegaleak lixatu eta zura babesteko tratamenduaren bi esku emango direla esaten da. Tratamenduaren kolorea ez da zehazten.

Larraulgo Arau subsidiarioen 14º artikulua esaten duen bezala, eraikinen kanpo itxuraren aldaketek udal lizentzia behar dute.

Urbeltz 37,38 eta 39 etxeak, Larraulgo lur hiritargariaren barruan kokaturik daude, bereziki A.I.U. 2.1. ELIZEGI unidatean.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Lur hiritargarrían eraikuntza materialak arautzen dituen artikulua, 37º da eta honela dio:

Artículo 37.- Materiales a emplear en los edificios

Los materiales a emplear en las nuevas construcciones, o reforma de las edificaciones existentes serán los tradicionales en el municipio:

...

-Carpintería: La carpintería exterior será de madera natural o pintada en tonos oscuros preferentemente. Se admitirá la utilización de carpinterías de otros materiales (PVC, carpintería metálica) pintada o lacada en colores apropiados”.

...

Beraz, teilatu hegalen babes tratamendua egun edo ilun kolorezkoa bada, udal baimena ematea egokia iruditzen zait.

Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.”

Gaia azterturik, Igor Barandiaran zinegotziaren abstentzioarekin, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Urbeltz auzoko 37,38 eta 39ko jabeak eginiko eskaera onestu, hau da, eraikinetako teilatu azpiko zurak berotik eta euritik babesteko tratamendua emateko obra baimena eskaera onestu, betiere Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean zehazten dituen baldintzak betetzen baditu.


BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.-Erabaki honen berri interesdunei ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

URBELTZ AUZOKO 27,28,29,30,32,33,34,35,37,38 ETA 39 ETXEEN JABEAK EGINIKO ESKAERA AZTERTU, KULTUR-ETXEKO TEILATUAN ANTENA KOLEKTIBOA JARTZEKO.

Bertaratuek aho batez (Igor Barandiaran zinegotziaren abstentzioarekin) erabakitzen dute gaia mahai gainean uztea, Kultur etxean antena kolektiboa jartzeko, kablea nondik pasa behar duten jakin arte



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BEDERATZIGARREN PUNTUA

HEZKUNTZA DEPARTAMENTUARI TARTEKATURIKO HELEGITEAK SORTUTAKO GASTUEN ONARPENA, HALA BADA

Ikusirik Larraulgo Udalak Hezkuntza departamentuari tartekaturiko helegiteak sortutako gastuen fakturak Udal honetara iritsi direla. Alde batetik, Begoña Urizar Arancibia, Epaitegietako prokuradoreak igorritako L0001592 faktura 287,30 eurotakoa eta L0001628 faktura 424,57 eurotakoa. Bestetik Ekain Equipos de Asesoría e investigación S.A. tik (Abokatu gastuak) igorria 3.776,00 eurotakoa.

Ikusirik, Larraulgo Udalaren eta Murgil Guraso Elkartearen artean adostu zutela, goian aipaturiko gastuak erdibana ordaintzea.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Begoña Urizar Arancibia prokuradoreari L0001592 eta L0001628 fakturak ordaintzeko onespena ematea, guztira 711,87 euro direlarik.

BIGARRENA: 711,87 eurotako gastua onestea.

HIRUGARRENA: Ekain Equipos de Asesoría e investigación S.A. -ri 3.776,00 eurotako faktura ordaintzeko onespena ematea.

LAUGARRENA: 3.776,00 eurotako gastua onestea.

BOSTGARRENA: Larraulgo Murgil Guraso Elkarteari jakinaraztea, Larraulgo Udalari 2.243,94 eurotako ekarpena burutu behar diola, Larraulgo Udalak Hezkuntza Sailari tartekaturiko errekurtsioek suposatu duten gastuen kontzeptupean (Koste osoaren % 50).

HAMARGARREN PUNTUA


GOI KARGUEN SOLDATA, DIETAK ETA ASEGURUEN ONESPENA, HALA BADA

Batzarkideak aho batez erabakitzen dute gaia mahai gainean uztea, hobeto aztertu arte.

HAMAIKAGARREN PUNTUA

APATTA-ERREKAKO INDUSTRIGUNEAREN ZERGA BANAKETAREN BERRI EMATEA, HALA BADA

Xabier Mujika Alkateak batzarkideei jakinarazten die bere garaian Larraulgo Udalak Apatta-Errekako industriguneari eginiko ekarpena dela eta, Larraulgo Udalak %



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOAKO)

0,722 partaidetza duela, gaur egun 5.510,39 euro ordainduko zaizkiola Larraulgo Udalari, jasotako zerga banaketaren kontzeptuan.

Batzarkideak jakin gainean gelditzen direlarik.

HAMABIGARREN PUNTUA

ETORLUR GIPUZKOAKO LURRA ETA FORU ALDUNDIAREKIN IZANDAKO BILERAREN BERRI EMATEA

Alkate jaunak batzarkide berriei aurkeztu dien Larraulgo Udalak, Udaletxe atzean eraikin balioanitz bat egiteko asmoa duela Landagipuzkoa 32-k (Gipuzkoako Foru Aldundiak) emandako diru-laguntzarekin, bitartekaria Etorlur Gipuzkoako Lurra delarik.

Ondoren Alkate jaunak batzarkideei jakinarazten die, Larraulgo Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiko Rafa Uribarren diputatuarekin izandako bileran azaldu zitzaizela diru-laguntza emateko IP-a egin behar zela eta ondoren Diputatu kontseiluak onartu.


Alkate jaunak batzarkideei azaltzen die Etorlurrek IP-a prestatzeko Eraikinaren proiektua eskatzen ziola eta Larraulgo Udalak ez zuenez proiekturik eta ezta baliabide ekonomikorik proiektua egiteko, bilera bat eskatu zuen Etorlurren, bertan Gipuzkoako Foru Aldundiko Teknikari bat egongo zelarik.

Bilera horretan, argi utzi zen IP-a prestatzeko beharrezkoa zela Proiektua egitea eta Gipuzkoako Foru Aldundiak proiektua ordaintzeko prest egongo zela jakinarazi zigun Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikariak. Beraz, bilera horretan Alkate jaunak ETORLUR GIPUZKOAKO LURRA-ri proiektua egiteko beharrezkoa zen esleipena egiteko izapideak martxan jartzeko eskatu zien, momentu honetan Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatu guztiak aldatu direlako, pasa den maiatzaren 22an izandako hauteskundeen ondorioz. LANDAGIPUZKOA 32 dirulaguntzekin, hau da, Larraulgo Udalari esleitutako diru-kopuruarekin zer gertatuko den ez dakite.

Larraulgo Udalak proiektua burutzeko egin behar den esleipena egin zezan eskatu ondoren, Etorlurreko gerentea den Florentino Ugalde jaunak Gipuzkoako Foru Aldundiak proiektuaren kostua suposatzen zuen gastua onartu arte ezin zela egin erantzun zion.

Segidan Idazkari andreak hitza hartzen du eta batzarkideei jakinarazten die, Etorlur Gipuzkoako Lurretik deitu diela eta bilera bat nahi dutela Udal Aholkulari teknikoarekin eta Alkatearekin, Larraulen Eraikin balioanitz bat egiteko beharrezkoa den proiektuaren esleipena egiteko, bilera hori datorren uztailaren 15ean egingo delarik.

Batzarkideek guzti honen berri jasotzen dutelarik.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

HAMAIRUGARREN PUNTUA

D.C.A. ANDREAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Batzarkideak aho batez erabakitzen dute gaia mahai gainean uztea, hobeto aztertu arte.

HAMALAU GARREN PUNTUA

2010 EKITALDIKO AURREKONTUAREN KONTU OROKORRAREN ONARPENA, HALA BADA

Ikusirik 2010 ekitaldiko Larraulgo Udaleko Kontu Orokorra 15 lanegunez jende aurrean jarri dela, bere iragarkia Udaleko Iragarki Taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz, edonork aztertu eta egoki zituen alegazioak aurkeztu zitzaizkien.

Ikusirik 2011ko maiatzaren 20ean argitaratu dela iragarkia GAO-n eta jendaurreko epea ireki dela 2011ko maiatzaren 21etik ekainaren 7ra bitartean, biak barne, ez delarik bere aurka inolako iradokizun zein erreklamaziorik aurkeztu.

Ikusirik Udaleko Behin behineko Idazkariak Kontu Orokorri buruz egin duen txostenean dioena.

Gaia aztertutik bertaratuek aho batez ondorengo,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Toki Ogasunen Aurrekontuari buruzkoak, xedatutakoarekin bat etorritik Larraulgo Udaleko 2010 ekitaldiko Kontu Orokorriari behin betiko onespina ematea.


BIGARRENA.- Akordio honen berri Herri Kontuen Euskal Epaitegiari ematea.

HAMABOST GARREN PUNTUA

2012 URTEAN LARRAULEN ESKOLA TXIKITAKO JAIA OSPATZEKO UDAL BABESA EMATEA, HALA BADA

Ikusirik 2012 urtean Larraulgo Udaleko Eskola txikitako jaia, eta honen antolakuntzaren arduraduna Larraulgo Eskola txikitako batzordea dela.

Ikusirik Larraulgo Udalak, 2012 urtean Larraulgo Udaleko Eskola txikitako jaia antolatzeke Eskola txikitako batzordeari bere babesaz azaldu nahi diola.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Kontutan harturik Larraulgo Udalak, ahal duen neurrian laguntzeko Eskola txikitako batzordeari eskatuko diola festaren antolaketari buruz, informazio eguneratua eman diezaiola.

Segidan Karlos Irazu zinegotziak proposatzen du Udal ordezkari bat Eskola txikitako batzordean egotea, horrela Udalari helaraziko zaion informazioa kalidadezkoa izango delako, bera konkretuki batzordean sartuta dagoela baina partikularki.

Ondoren Imanol Aranzabal zinegotziak proposatzen du Udalaren aldetik hartu daitekeen konpromisoa, Eskola Txikitako jaiaren antolamenduan, beste instituzioei egin behar zaizkien eskaerak kudeatzen izan daitekeela, proposamen honekin batzarkide guztiek ados daudelarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: 2012 urtean Larraulen ospatuko den Eskola txikitako jaiari babesa ematea.

BIGARRENA: Eskola txikitako batzordeari jakinaraztea, Larraulgo Udalak antolamenduarekin laguntzeko, egiten ari diren izapideei buruzko informazio eguneratuta ematea.


HIRUGARRENA: Eskola txikitako batzordeari jakinaraztea, Larraulgo Udalak konpromisoa hartzen duela, Larraulen Eskola txikitako jai ospatzeko, Administrazio desberdinekin egin behar diren izapideak egingo dituela.

HAMASEIGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

KIROLZER	118,45
BABESA SUZAI	62,12
EBA ERKIZIA BRION	158,96
GIPUZKOAKO URAK	3.827,44
BERRI LANTEGIA	119,03
FONGUI	37,95
IZFE	1.918,55
GIPUZKOAKO URAK	3.604,11
MANPEL	83,90
FERRETERIA BARBE	73,54
UROLA	99,19




LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

FERRETERIA BARBE	22,30
SOCOTEC	175,23
ERREZIL	415,80
SANIPLAST	107,38
IZFE	528,64
XAIMA	853,14
FERRETERIA BARBE	29,91
KIROLZER	118,45
UROLA	53,41
SALTOKI	17,35
MRW	49,32
LASURTEGUI ATXEKI	318,60
IBERDROLA	152,85
IBERDROLA	150,85
IBERDROLA	50,98
IBERDROLA	114,59
IBERDROLA	182,24
IBERDROLA	17,11
IBERDROLA	11,19
IBERDROLA	11,74
IBERDROLA	171,95
IBERDROLA	125,81
IBERDROLA	126,05
IBERDROLA	48,10
IBERDROLA	39,00
IBERDROLA	262,79
IBERDROLA	85,47
IBERDROLA	173,45
REPSOL	3,91
REPSOL	66,71
MOVISTAR	92,55
MOVISTAR	88,68
MOVISTAR	20,47
MOVISTAR	17,74
MOVISTAR	81,21
MOVISTAR	17,75
MOVISTAR	20,47
MOVISTAR	89,37
EUSKALTEL	181,07
EUSKALTEL	214,40

Udalbatzarrak **ahobatez** hurrengo,



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **15.401,27** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

HAMAZAZPIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

17.1.VILLABONA, ASTEASU, LARRAUL ETA ZIZURKIL BAKE EPAITEGIEN IDAZKARI AGRUPAZIOAK EGINIKO ESKAERA AZTERTU.

Ikusirik, Villabona, Asteasu, Larraul eta Zizurkil bake epaitegien idazkari agrupazioak eginiko eskaera non ondorengo dioen:

“Remito a Vd. El presente a fin de poner en su conocimiento que esta Agrupación carece de liquidez para su funcionamiento, por lo que le ruega que a la mayor brevedad posible, haga ingreso en la cuenta designada a tal efecto, de la cantidad que estime conveniente, como así he solicitado a los demás Ayuntamientos para poder hacer fente a los gastos de la Agrupación. En la actualidad la cuenta de la Agrupación tiene un saldo de cinco euros y pendiente de pago una factura de papel y sobres de 700 euros.”

Ondoren Xabier Mujika Alkateak batzarkideei proposatzen die bilera bat egin nahi duela beste Udaletako Ordezkariekin denen artean adosteko Bake Epaitegiko idazkari agrupaziori, euren funtzionamendu gastuetarako, Udal bakoitzak, ordaindu beharreko diru kopurua.


Segidan, Udalen artean hartzen den erabakia, Bake epaitegien idazkari agrupazioko langileei jakinaraziko zaie, eurekin edukiko duten bilera batean eta azken hauek Udalek eginiko eskaera onesten badute, Udal bakoitzak urtero adostutako ekarpena burutuko dute, bake epaitegien funtzionamendu gastuetako.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Villabona, Asteasu, Larraul eta Zizurkil Udal Ordezkariekin bilera bat egitea, Bake epaitegien idazkari agrupaziori, bere funtzionamendu gastuetarako beharrezkoa duten diru kopurua Udal bakoitzak zehazteko.

BIGARRENA: Villabona, Asteasu, Larraul eta Zizurkil Udal Ordezkariek adostutako urteroko ekarpena, idazkari agrupazioaren funtzionamenduko gastuetarako, bertako langileekin adostea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

17.2. HERRIKO JAIETAKO PROPAGANDA HEDABIDEETAN JARTZEKO PROPOSAMENAREN AZTERKETA, HALA BADA.

Ikusirik Herriko jaietako programaren publizitatea hedabide desberdinetan jartzeko proposamenak izan direla.

Gaia azterturik, Udalbatzak, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Herriko jaietako programaren publizitatea, hedabideetan ez jartzea.

HEMEZORTZIGARREN PUNTUA ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK

- J.M.I. herritarrak ondorengo eskaera egiten du:


“Herritarrak Udaleko dinamikan parte hartzeko legezko aukeren berri herrian zabaltzeko eskaria

-Nik, J.M.I.M., Larraulgo herritarra naizen aldetik, Udal Batzar honi proposatzen diot Larraulgo Udalak herritarroi azaldu diezagula herritarrok zein legezko aukera dauzkagun Udaleko dinamikan parte hartzeko: proposamenak egin eta defenditzeko, udal informazioa eskatzeko, udal batzordetan parte hartzeko...Proposamen zehatza da legezko aukera horiek eta jarraitu beharreko prozedurak dokumentu batean bildu eta zabaltzea.

-Era berean, eta horrekin lotuta, proposatzen dut Plenora datorren gai-zerrenda ere herrian zabaltzea, buzoneatzea eta interneten jartzea gutxienez astebeteko epearekin, Plenoa badelako herritarrok ere zuzenean parte hartzeko udal organo bat, eta parte hartze horrek informazioa ere denbora batekin jasotzea eskatzen duelako. Azkenik, Plenoko erabakiak ere herrian zabaltzea proposatzen dut, paperean zein internetez.”

Batzarkideak J.M.I. jaunak eginiko eskaerari hurrengo Udalbatzarrean erantzuna emango diotela adosten dute.

- Alkate jaunak azaltzen du lehendabiziko aldia dela eta aurreko legealdian ez duela ikusi Udalbatzarrak bideokamarakin grabatzen. Kasu honetan lan horretan ari den partikularrari zuzenduaz esaten dio gutxienez bertan daudenei galdetu beharko ziela ea grabatu daitekeen eta grabaketa egiteko eskaera egin, zehaztuaz grabaketarekin zer egin nahi duen.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 21.40 orduak direnean Alkate orde jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA